

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pepi Añorga Salaberria

*Donostia,
Gipuzkoa
(1939)*

Aurkibidea



Biografia



Miramón Berri baserrian jaioa, Aieten. Ama Añorgakoa zuen, aita Altzakoa. Lau senide ziren. Inazia Barrenetxea maistrarekin ibili zen eskolan, Aieten bertan, hiru urterekin hasi eta 14 bete arte. Baserriko lanetan jardun zuen gaztetxoaren zenetik. San Martín azokara joaten ziren tratuarekin, eta esnea partitzen zuten etxez etxe. Felix Durandegirekin ezkondu zen, Pagola Azpi baserrira, eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-085

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-24
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Aieteko baserriak

- **Erref:** DON-085/002
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:01:14. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Miramón Berri baserria eta inguruak. Jauregia, Merkeli, Intxordegi, Paraiso, Katxola... Ama Añorgakoa eta aita Altzakoa.

2. Ama, Katxolan bizi izandakoa

- **Erref:** DON-085/004
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Familiako kontuak. Aitaren familia Miramon Berrira joan zen bizitzera; amarena, berriz, Paraisora eta handik Katxolara. Sagardotegia izan zen. Katxola lekuz aldatu zuten, harriz harri.

3. Miramon Berri baserria

- **Erref:** DON-085/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Miramon Berri baserria nolakoa zen. Hiru familia bizi ziren. Etxe zati bat erori zitzairen. Jauregira joan ziren bizitzera, aldi baterako. Lau senide ziren.

4. Eskolan, adin askotako neska-mutilak batera

- **Erref:** DON-085/007
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:12:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Hiru urterekin hasi zen eskolan. 14 urte arte. Maistra bat ume guztiekin, Ignacia Barrenetxea. Umetako jolasak: txorro-morro, kanikak. Enziklopedia zuten. Zigorak; atximurka, makilarekin jotzea.</p>

Transkripzioa

-Zu eskolara nora juten ziñan?

-Oíñez. Hiru urtekin hasi nitzan; klaro, nere ahizpak pixkat haundixeok zian, bost eta sei, zazpi urte o bazituen, eta haikin, Axkarteneaiño; Axkartene zeon "Palacio de Franco" baiño pixkat lehentxio. Ta eunero-eunero, goizian jun, eguardin berriz etxea bazkaita, eta hamalau urte arte ibili giñan hor eskolan.

-Eta eskola hori zer zan: monjena, publikua...?

-Ez, profesora bat ume guzikin: hiru urtetikan hasi ta hamalau urteaiño eoten zan, ta krixton ume pilla. Ez dakit, hogeita hamar eo zenbat giñan.

-Eta nola zun izena profesorak?

-Ignacia Barrenetxea.

-Eta klasiak erderaz izango zian...

-Erderaz. Oooo, ez euskeraz hitz ein, buenooo! Zan... hola, holakua.

-Zorrotza?

-Pixkat piztu giñanak, danak hazi giñanian ya neska-mutillak, ez ziguten uzten alkarrekin ateatzen! Leihotikan ikusten zunian neskak ya kaletik... zea, kamiyun bagoazela, ordun mutilleidi uzten zien ateatzen. Ta gu intxoiten bitartian, etortzeko.

-A, bai, e?

-Klaro! Lehengusuak-eta zian ta. Mutillak-eta lehengusuak. Neska ta mutillak etxea alkarrekin juten giñan, ta geo atsaldian berriz´e buelta alkarrekin. Baiño holaxen, holaxe eukitzen ziguten. Eta geo ikastolan, o eskolan Txorro-Morro jolasten´e han ibiltzen giñan; iñorrek ez zigun ezer esaten! Kaniketan, etxetikan hasi ta eskolaiño kaniketan.

-A, bai?

-Bai, hola juten giñan, ta igual rekreua ez zigun utziko andereñok, eta bokadillua birian jaten giñun. Bai.

-Eta kastigatu-ta iten zuten?

-A, bai, bai. Klao, mezi´re bai, e!

-Merezi ere bai?

-Mezi´re bai. Bai, bai.

-Bihurriyak ziñaten zuek?

-Bihurriyak giñan. Geo asko gustatzen ez eskola, ta deskuidatzen bazea lanak´e in gabe. Ta horreatikan, ba bokadillua bazpare birian jaten giñun. Baiño oso... ondo, kontentu!

-Ze ikasten zenuten? Libururik-eta bazeon?

-Bai, perio... zea, periodikua berriz ni! Libru bat, enziklopedi bat; zakan danak: "historia, historia sagrada, matemáticas, gramáticas"... dena zakan libru batek.

-Dena baten, e?

-Dana baten. Oaindikan begi aurrian dakat gaiñez nolakua... ze liburua zan. Ya behin hasi ezkeru ya... ikasten genitunian letrak... aurrena kartillakin eta geo ya ematen ziguten zea bat, enzikopledia esaten zana. Ta geo han eskolan bertan ba libru askok letzeko, letura... han, ta danak iten genitun.

-Ta "cálculo"-ta?

-Ba haik denak, bai, bai. Denetikan erakusten ziguten, denetatikan. Baiño, hoixe, batzuk listuguak, bestiak zeaguak, "según".

-Eta edade desberdiñetakuak egoten ziñaten elkarrekin...

-Hiru, hiru urtetatikan hamalaua.

-Baiña denak gela baten?

-Danak gela batian.

-Eta neskak, neska-mutillak?

-Danak alkarrik, alkar...

-Eta zenbat izango ziñeten?

-Ba hogeita hamarren bat o!

-Hogeita hamarren bat o.

-Bai, bai, izango giñan.

-Ba ez zan izango errexera erakustia, hola adin ezberdiñetako...

-Zuk, zuk pentsa... geo, geo letxe txarra zakala señoritak. Ez zun ba eukiko! Ta biri zeskan maniya. Baiña besuak holaxen eukitzen zituen, atximurtuka. Ta ze ta... ez motibuakin, e! Ez, nik ez dakit... maniya ziyen. Nei kanabelakin behin, jo zian burun. Ta parrez hasi nitzan, ta geo ezin nun ixildu. Eta kanpoa bialdu zian. Bai, bai.

5. Idiekin lanean eta jolasean

- **Erref:** DON-085/009

- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:12:29. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Umetako jolasak. Gurdiaren puntan igota. Idiekin jolasean, uztarrarian lotzen zituenean. Josten ikasten ibili zen. Baina baserriko lanetan ibilia da batez ere.

6. Belar metak egiten

- **Erref:** DON-085/010
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:16:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Baserriko lanak. Zakar bila neguan, azpiak egiteko. Belar metak nola egiten zituzten.

7. Esnea eta berdurak, kalean saltzeko

- **Erref:** DON-085/012
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ze animalia zituzten kontatzen du. Zaldi-karroarekin plazara joaten zen ama, San Martinera. Esnea eta berdura asko. Morroiak. Txerri jana. Bezero batek yogurtak egiten zituen saltzeko. Berdura. Pilotan jokatzen zuten.

8. Baserritarren arteko harremana

- **Erref:** DON-085/013
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserrien arteko harremana oso gertukoa zen. Anekdotak: Migel bizilagunak egin ziona marrubiak batzen ari zela.

9. Iturria eta askak

- **Erref:** DON-085/014
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:23:23. **Bukatu:** 00:24:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Iturria. Arropa etxean garbitzen zuten; bi aska zituzten, bat marmitentzat eta bestea arroparentzat.

10. Komuna eta sukaldea

- **Erref:** DON-085/016
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:26:58. **Bukatu:** 00:29:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Komuna nolakoa zen, egurrezkoa. Komuneko paper bezala, egunkaria. Sukaldean, ekonomika eta beheko sua. Egurra osabak txikitzen zuen; Rezolako lorezaina zen.

11. Morroiak eta apopiloak

- **Erref:** DON-085/017
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:29:58. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Morroiak eta neskamea. Amaren izeba joaten zen jostera, konponketak egitera. Apopiloak, tripa truke. Morroien lanak eta jorna. Haien parrandak.

12. Dotrina, euskaraz

- **Erref:** DON-085/018
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:33:48. **Bukatu:** 00:36:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Umetako lanak baserrian. Itaurrean ibiltzea, eskolara joatea baino nahiago. Dotrina euskaraz, Aieten, Don Eustakioekin. Igandero. Jaunartzea.</p>

13. Dotrina eta gero, Azken Portura dantzara

- **Erref:** DON-085/020
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:36:38. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dotrina euskaraz, baina eskolan erdaraz. Don Eustakio apaiza. Igandetan dotrinara, eta gero Azken Portura dantzara. Dantza soltea, 16 urte arte helduta dantza egiten ez baitzieten utzi. Amarekin dantzan, sukaldean.

Transkripzioa

-Baiño euskeraz, dana euskeraz ikasi giñun... Oan, eskolan ez, eskolan dana erderaz. Han ez ziguten uzten euskeraz hitz eitia. Ezta pentsatu´re.
-Eta apaiza gogorra zan, ala...?
- Ez, Don Eustakio? Ez. Ez zan, keba.
- Zigortu ta ez zun egiten?
- Ez, ez, ez, ez. Gustoa juten giñan. Ya, hoi, nola jun bihar zan, ba hoixe izaten giñun gure igandeko zeak, hamalau urte arte. Eta geo handikan sankristitikan atea ta Azken Portua dantza. Taberna bat zegon, etortzen zian, etortzen zan akordeoi zea, eskuko...
-Soinu jotzailia?
-Bai, eta a lo suelto mutillekin ez ziaten uzten dantza iten ta.
- Ez? Eta nork ez zizun...
- Baltzian ez ziaten uzten. Gurasuak.
- Gurasuak?
- Jo, honbreee, jolin. Hamasei urte arte. Geo hamasei urtekin bai ya, honekin. Baiño sueltuan? Bueno, bueno, gelditu´re ez!
-Ta nun ikasten zenuten dantzan?
- Uuuu, etxian radiyuan sueltuan musika hasten zanian, amakin igual sukaldian dantzan aitzen giñan. Asko gustatzen zitzayon amai, ta hola atea giñan, e? Hiru ahizpak amakin dantzan sukaldian!
-Eta radiyuan jartzen zenuten?
- Bai, radiyuan zanian zea... "a lo suelto" edo esaten zana... benga dantzan! Bai, bai, bai. Geonek ikasi giñun.
-Eta kantatzeko eta zaletasunik bazenuten? Etxian eta...
- Kantatu? Ixildu´re ez giñan iten! Baiño geo ya seme-alabak zeatu in ziaten, galazi in ziaten kantatzia, gaxki kantatzen nula ta. Oan ezin det kantatu!
-Bueno, bueno...
- Hasten naiz kantatzen, ta bilobak´e ixiltzeko esaten diate! "Así es que" oan nada! Ez naiz gogoratzen´de kantziyo bat. Hasten naiz Andre Madalen kantatzen, zeatikan nexka ttikiya dantzan hasten zaigu eta nik kantatzia

Andre Madalen bai, baiño... ahaztu in zait!
-Ahaztu in zaizu?
- Ahaztu iten zait! Ta lenguan biyak ibilli giñan dantzan. Sei urteko...
billobakin.

14. Gabonetako bertsoak eta San Juan eguneko ohiturak

- **Erref:** DON-085/022
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:42:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Gabonetan kantatzeko ohitura. Bertsoak. Santa Ageda. San Juan sua. Nagusiaren semeek zaldi gainean egiten zuten salto su gainetik. Gerora, auzotarrak Katxola parean elkartzen ziren. Lizarra jartzen zen etxe sarreran.

15. Senideen artean zuka

- **Erref:** DON-085/024
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:43:24. **Bukatu:** 00:44:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoei zuka hitz egiten zieten eta anai-arreben artean ere bai.

16. Txerrikiak

- **Erref:** DON-085/025
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:44:19. **Bukatu:** 00:46:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Zerrama izaten zuten umeekin, saltzeko. Xexiliok txerria hiltzen zueneko. Odolkiak. Auzolanik ez, baina beti laguntzeko prest. Idi demak.</p>

17. Garraioak eta gurdiak

- **Erref:** DON-085/027

- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:46:41. **Bukatu:** 00:50:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Azken Portura joaten ziren hasieran, gero Irubidera eta Hernanira, oinez. Autobusik ez zegoen arratsaldez. Zaldi-karroa eta gurdiak. Lera galarazi egin zuten. Lurra lantzeko tresnak.</p>

18. Arrosarioa eta Gabonetako giroa

- **Erref:** DON-085/029
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:53:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Arrosarioa errezatzen zuten umetan, amarekin. Gabonetan etxeoak elkartzen ziren. Jatekoa. Arraina. Gabon kantak. Urte zahar egunean Katxolan elkartzen ziren lehengusuak. Panderoa jotzen zuten.</p>

19. Meltxor erregearen bisita eta umetako jostailuak

- **Erref:** DON-085/030
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:53:14. **Bukatu:** 00:56:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Erregeak. Oparia, oihala. 12 urte arte ez zuen jakin. Izeba joaten zen, Meltxorrez jantzita. Ahizpak motoa eskatu zuen. Beraiek egindako panpinak.

20. Oiloak, txitak, ahateak eta kapoiak

- **Erref:** DON-085/031
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:56:17. **Bukatu:** 00:58:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Oiloak eta ahateak libre ibiltzen ziren. Habia bilatzen trebea zen; txitak. Oilaskoak hazi, eta kapoitu egiten zituzten, Gabonetan saltzeko. Artoa eta belarra ematen zieten jaten.

21. Sacamantecas agertzeko beldurrez

- **Erref:** DON-085/034
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:01:19. **Bukatu:** 01:02:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Sacamantecas. Katxolatik Miramonera beldurrez joaten zen. Baina bestela ezer txarrik ez zuten pentsatzen inoiz.

22. Zikoina berriro noiz etorriko

- **Erref:** DON-085/036
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:02:46. **Bukatu:** 01:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Ez zen sexuari buruz hitz egiten, ezta lagun artean ere. Umeak nondik zetozen: zikoinak Añorga Txikiko tren geltokian uzten zituen (ikus mapan). Amona ibiltzen zen emagin lanetan.</p>

Transkripzioa

-Ez zan hitz egingo sexuari buruz eta holakorik... esistitzen zanik ere...
-Ezta pentsatu're! Jesus Maria! Nola nahizu /nahi dezu/ holako gauzak... ez, ez, ez. Ezta, ezta ahizpan artian´de!
-Ez, e?
-Ez, ez, ez, ez.
-Lagunen artian ere ez?
-Ezta´re! Ezta´re!
-Eta umiak nundik zetozela esaten zuten?
-Umiak? Nere anaya jayo zanian nik sei urte nazkan. Ba... zea, zea... "la cigueña" Añorga Txikiko estaziyuan utzi zula, eta nola ekarri zuen. Etxian euki zun, amonakin, gue, eta jayo zanian eaman ziguten umia ikustea. Hurrungo egunetikan leihoa atea ta noiz pasako zan, zea... txorin bat berriz´e umiakin, pentsa! Ze nahizu /nahi dezu/?
-Orduan, umia jaio eta bautizatu iten zan hurrengo egunian, edo segituan, ez?
-Ba ez dakit noiz jayo... noiz... ba hola ingo zuen, ni ez naiz goatzen. Ni gogoatzen naiz nola deitu ziguten, oyetikan jeikiarazi eta nola anai ttikiya giñun, eta ikustea jun giñan, amonak nola...

-Amonak lagundu ziyon?
- Bai, bere amak. Bere amak. Etxian eukitzen zitun, bere amakin.
- Bai, baiña ez zan emaginik edo matronarik izaten?
- Ez, ez, inor ez. Matrona zan amona, amona. Han inguruko... nik uste det amona ibiltzen zala.
-A bai, e?
-Bai, bai, bai, bai.
-Beste baserritara eta...
-Bai, beste baserritara ere... bueno, bere, izeba Mikelan guztik ´e amonak, amonakin, bere amakin. Ta bestela ez dakit, zeatikan eske lengo amonak denetatik zekiten! Pantxika Paresokua ´re, "aquella"... hura ere... bai, bai, bai.

23. Osin ura, gero ardoa edateko

- **Erref:** DON-085/038
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:05:14. **Bukatu:** 01:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Sendabelarrak. Berbena eta pasmo belarra. Morroiek osin ura edaten zuten, gero parranda egiteko.

24. Azken igurtzia

- **Erref:** DON-085/039
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:07:15. **Bukatu:** 01:09:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Medikua etxera joaten zen, Olano. Azken igurtzia. Hilkutxa bizkarrean Polloera. Abisua ematea.</p>

25. Aieteko festak

- **Erref:** DON-085/043
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:13:01. **Bukatu:** 01:15:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Aieteko festak, santakruzetan. Umeak zirenean ogitartekoarekin joaten ziren, gurasoekin. Beti dantzan. Zinta lasterketa. Herri-kirolak. Demak ere izaten ziren Aieten. Erramunene baserrian zegoen bolatokia. Toka jokalaria onena, Matxain.

26. Aieten sagardotegi asko zegoen

- **Erref:** DON-085/045
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:15:15. **Bukatu:** 01:16:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Aieteko sagardotegiak. Katxola, Lastuene, Erramunene, Munto... Floreseko semea albaitaria zen.

Transkripzioa

- Katxola...
- Katxola.
- Eta gero bi ziran ez?
- Laxtuene, bestia. Laxtuene sagardoteya. Laxtuene baserri bat zan, Laxtuene zala hoi zan gure etxetikan aurreo oaindikan. Oyamendiko (Oriamendiko) parian. Ta hor juten zian aittoñak danak bertsokan. Han eoten zian. Bai.
- Lastuene.
- Laxtuene, bai. Ta Erramunene're zan sagardoteya edo restaurante bezela. Janak eta ematen zuena... zean Erramunene're.
- Eta Munto?
- Ta Munto hoi're, hor'e jende asko juten zan Munton... Munton'e. Hor, geo... Munton ta Ixturin ta... Hor...
- Flores?
- Flores ya Muntotikan Matia aldea.
- A...
- Ze baserri bat.
- Ta hori ere sagardotegiya zan?
- Hoi're sagardoteya uste det /ustet/ zala.
- Orduan, asko zeuden?
- Bai, bai. Bazauden. Ni ez nitzan sekulan hor... ez nun ezautu ho e! Baiño hor ezagutu nun nik! Eta horko semia betenayua zan. Deneta, baserri guzita ibiltzen zan betenayua. Bai.
- Floresekua?
- Bai. Nola izena zun ez naiz gogo... oain gogoratzen. Gizona jator askua!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com